

# HERNANI kronika

2003 urtea  
Urtarrilak 27  
Astelehena  
Alea: 679  
[www.hkronika.com](http://www.hkronika.com)



Florida eta Ibaiondo arteko zubia egiteko obrak martxan daude, bi aldeetatik ari dira lanean.

## Florida eta 'Orbegozo'ko poligonoak lotuko dituen Urumeako zubia hasi dira egiten

■ Zubiak 70 metro izango ditu luzean, eta 12 zabalean ■ 3,5 metroko bi karril izango diru.

ORBEGOZO edo Ibaiondo poligonoaren urbanizazioaren barruan, Floridak poligonoa eta Ibaiondo lotuko dituen zubia ziojan, eta obrak hasita daude. Urumeako bi alde horiek lotuko dituen zubiak 70 metro izango

ditu luzean eta 12 zabalean: 3,5 metroko bi karril eta 2,2 metroko bi azera. Zubia Floridak auzoa Akerregiko loturarekin elkartuta utziko du. Kamio trafikoari dagokionez, trenbidez Urumea alderia dagoen poligono zati-koa

hartuko du, oraingo behintzat trenbidea pasatzeko modurik izango ez delako.

**Zona industrial berriak**  
Bestalde, Renfeko tren estazioa inguruan (argazkian es-kubira) pabeloi industrialak

jartzeko proiektua aurrera dijoa. Dagoeneko pabeloiak egiten hasi ere egin dira, eta horrek bere martxa eramanago du, Udaletxeak lizenziak eman ahala. Akerregin ere beste poligono berri bat martxan da. □

## Atofinako zuzendariek eta medikuak inputatu gisa deklaratuko dute Auzitegi Probintzialean


■ Fiskalak uste du inputatuek langileen eskubideen kontrako delitua egin ote duten.

GAUR eta bihar Atofinako 3 zuzendarie eta medikuak Gipuzkoako Auztegian deklaratuko dute inputatu gisa, Atofinak langileen eskubideen kontrako delituk egin ote duen aztertzen ari den prozesu judzialaren barruan.

Auto judzialak Epeleko enpresako hiru zuzendari eta medikuari *heriotza edo lesio grabeak sortzea* leporatzen die, *inprudentzia larria* egiteagatik enpresari eta mediku zerbitzuari zegokien arduretan.

Prozesu judzial hori CCOOk Atofina enpresari jarritako salaketatik dator, Atofinan lanean ibili eta ustez minbizarekin hildako 27 pertsonen heriotza argitzeko. Osalanen azterketak eta Epeleko enpresan lanean ibilitako zenbaiten aitorpenak kontuan hartuta, tribunalek prozesu judziala zabaldut dute delituk izan den ikusteko.

Atofinako zuzendaritzak, berriz, esaten du enpresak beti legearen barruan jokatu duela. □



Atofina enpresa Epeleko poligonoan dago.

### HERNANI INSTITUTUA

**Hitzaldia hezkuntza kalitatea eta neska-mutilen arteko ezberdintasunei buruz**

HERNANI Institutuak kalitatea eta hezkuntzari buruzko hitzaldi zikloa antolatua du. Ostegun honetan hezkuntza kalitatea eta neska-mutilen arteko ezberdintasuna aztertuko dute. Estatistikiek esaten dutenez, ikasteketan neskek emaitza hobea ateratzen dituzte, hasi DBHtik eta unibertsitateraino.

Arantxa Gorostidik aztertuko du hori zergatik gertatzen den eta horren aurrean irakasleak eta familiak zer egin lezaketen. Hernani Institutuak gai horrekin interesatua dauden guztiak gonbidatu ditu hitzaldira.

Hitzaldia Biterin da, ostegun (urtarrilak 30) arratsaldeko 18:30etan. □

### AURRERA ELKARTEA

**Deia Inauterietako konpartsan ateratzeko**

AURRERA elkarretak urtero konpartsan ateratzen du Inauterietan. Aurten ere ateratzeko prestaketa martxan dituzte eta ostegunean Biterin azaltzeko deialdia egin die *Aurrerako konpartsan ateratzen* nahi dutenei edo lagundu nahi dutenei. Aurrera elkarteko kideak 18:00etatik 19:30etara egoten dira ostegunero Biterin. □

**Santa Ageda bezperan kantatzeko entsaioa**

SANTA Ageda bezpera laister da eta *Ohitura Zaharrak* elkartea beti bezala aurten ere erronda egingo du otsailaren 4an. Ostegun honetan kantuan ateratzen nahi dutenek Biterin dute entsaioa, arratsaldeko 20:00etan. Entsaio bakarra izango da. □

### ESKAINTZA BEREZIAK

**TUNEZ era**  
Urtarrila eta otsailean  
(Bilbo-Tunex)

3 izarreko Hotelak \*\*\* 189 euro  
Mech Moun Hotelak \*\*\* 250 euro  
**Zirkuituak:** Royal Sahariarra  
3 izarreko Hotelak: 299 euro - 4 izarreko Hotelak: 315 euro  
+ TASAK (15 euro)

**HERNANI BIDAIAK**

Urbia etorb. 6 - ☎: 943 330049 - 330174  
e-mail: [hernanib@teleline.es](mailto:hernanib@teleline.es)

Konponketa lanak direla eta, kalean beste aldean gaude, bolada baterako.

CATALANA OCCIDENTE 

Bautista Biurrarena  
Etxegoien

Kardaberaz 40 -Behe  
Tel. 943 33 24 40  
Faxa 943 556602  
Mobila 610 29 27 01  
20120 HERNANI

**GSE**

LAN AHOLKULARITZA

FISKALA

KONTABLEA



Atzieta 51 Behe - 20.120 HERNANI  
Tel: 943 55 02 54- Faxa: 943 33 58 01




**GARAJE ITXIAK  
'OBLATOS'ETAN  
SALGAI**

Informatu eta saldu:

☎ 943 33.22.37

Argitaratzailea: Dobera Euska Elkarteak. Errredakzioa: argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerai. Egoitza: Larramendi 11. Tel: 943-330899. Fax: 943-336306. Eposta: kronika@topaginea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.



'Trieb' taldea kontzertuan. Hernanin ez dute inoiz jo eta gaurko kontzertua berezia izango da.

## 'Trieb' musika taldeak estrenoak etxean

■ 'Trieb' taldeak rock musika instrumentalra egiten du, baina, estilo asko biltzen ditu bere kantuetan ■ Kontzertua Biterin da, gaur arratsaldeko 19:30etan.

TRIEB musika taldeak Hernanin joko du gaur aurreneko aldiz, Udal Musika Eskolak antolatutako kontzertuan. *Trieb* taldea 4 musikok osatzen dute eta bi hernaniarrak dira: Satxa Soriazu eta David Soriazu, tekladua eta gitarra. Bi horiekin batera, Aitor Arozena, baju elektrikoa, eta Ricardo Martínez bateria dabiltza.

Satxa Soriazuk Kronikari

adierazi dionez, *Trieb* taldeak batez ere rock musika egiten du, baina, beste estilo eta influentzia asko biltzen ditu. Musika instrumentalra da, eta Soriazuren ustez, behar bada, litekeena da jende batia arraroa egitea, ohitura gutxiago dagoelako abestirik kantatzan ez duten musika taldeak entzuteko. Zentzu horretan, musika zaleak kontzertura animatzeaz

gain, Soriazuk entzuleei eskatu die mentalitate irekiarekin etortzeko.

### Maketa grabatua

*Trieb* taldeak lau urteko bidea egin du eta maketa bat grabatuta du, argitaratzeko bidean. Gaurkorako urduri xamar ote dauden ere aitortu dute, baina, kontzertu ederra ematera datoaz Biterira. □

## FUTBOLA

### Gorengoa 2-1 irabazi, eta neskek 3-2

ASTEBURU ona izan dute Hernaniko aurreneko bi taldeek. Gorengoa Zarautzen kontra jokatu zuen Zubietan, eta 0-1 galtzen hasiagatik, zuriberdeek ez zuten etsi eta buelta eman zioten partiduari. Gurrutxagaren golak ber-dindu zuen partidua eta Xabi Blachek 2-1ekoa sartu zuen. Atsedenaldirako Hernanik ondo bideratuta utzi zuen partidua. Bigarren denboran beste aukera pare bat ere izan zituzten hernaniarrak baina, ez zen golik izan. Orokorean, urrezko hiru puntu eta joko ona.

Emakumezko taldeak arazo gehiago izan zituen, azkenean hiru puntuak beretzen izan baziren ere. Hernanik 3-2 irabazi zuen, baina, partidu osoan markagailuan atzetik ibili zen. Hernaniaren golak Alazne Bengoetxeak, Itxasne Alkainek eta Olaia Izagirrek sartu zituzten.

Datorren asteko dilema haundieta da Zubipe berriz jokatzeko moduan izango ote den. Berez, dena pronto dago lanak egiteko, baina, eguraldia da arazoak. Lehorrean egin beharreko lana da, eta oraingoz ez dago hortearako aukera haundirik. □

## WATERPOLOA

### Hernani Bk egurra

HERNANI Bk Euskal Ligako partidua jokatu zuen atzo Easoren kontra eta erruki gutxiko emaitza ekarri zuen. Hernaniarrak 2-17 irabazi zien donostiarrei, baina, kontuan hartze-ko da Easo talde hasi berria dela. Hernaniko taldean honako jokalari hauek jokatu zuten: Casas, Ortiz (3 gol), Izuzkiza (gol 1), Fernandez (3), Diez, Robles (1), Redondo (gol 1), Zapiain (2 gol), Andres (2 gol), Aldabe (2 gol) eta Arenales (2 gol). Emakumezko taldeak atsedenalda zuen eta Hernani Ak lagunarteko partidua jokatu du. □

## ERREMONTREA

### 3 semifinal erabakita

BINAKAKO txapelketa hiru bikote semifinalaletarako klasifikatuta daude. Iñigo-Lizaso, Ezkurra-Urko eta Altuna I-Eizagirrek 4na puntu dituzte eta hurrengo fasera pasako dira. Oraingoz, laugarren postuan Jokin Etxabe eta Garikoitz Altuna daude 3 punturekin, eta horiek ere aukera haundia dute aurrera egiteko. Besteetatik urrutti, Zeberio II-Aizpuru daude, puntu bakarrarekin. □

## KIROLA

FUTBOLA	Taldeak	Emaitza
Gorengoa	Hernani-Zarautz	2-1
Emakum ezkola Liga 1.Erejionala	Hernani Amara Beni	3-2
Gazteen liga Nazi	Olatz-Hernani	1-2
Gazteen Oho rezko	Buxum endi-Hernani	2-3
Kadeteen Oho rezko	Hernani Abñia M endi	0-1
Kadete 2.M aila	Hernani-San Patricio	2-0
Haurren Oho rezko	Elobar-Hernani	1-1
WATERPOLOA		
Euskalliga	Easo -Hernani	2-17
XAKREA		
Gipuzkoako 2.	EbarB-Hernani	1-3
Gipuzkoako 2.	Hernani-B-Zarautz	3-1
PELOTA		
Euskaldiko txap		
Kadetea	Ekaiza/Gorobildegia	22-12

## ASTEBURUKO EMAITZAK

PELOTA	Emaitza
22 urtez azpiko txap. Kirodegian E moizenea-A muti/Gaztandia-Lurta Yuberio-Oteiza/Mazkiran-Lagos	22-18 13-22
Eremontea larunbata	
Martinez-Lander/Zianda-B aneznetxa II Ezkuna-Urko A luna HE izagire A luna II A ipuma II/B itxia-Etxabe M atxik IIIB adibak/Sazasua-Etxebetia II	24-35 40-39 40-33 30-28
Udaberri txapelketa	
Pal-G Pal-G Jubenila Kadetea	30-24 30-9 22-18 15-22
Gipuzkoako Txapelketa	11-22
Infan Ezeiza-Grajal/Andapse	18-1

## PELOTA

### Zabala-Rekalde, txapeldunorde 'Gipuzkoako Txapelketa Herrikoian'

GIPUZKOAKO Igo Txapelketa Herrikoia jokatu berri da eta Zabala eta Rekalde ezin izan zuten txapela Hernanira ekarri. Hernaniarrak Errekondu eta Portularrumen usurbildarrak izan zituzten kontrario, eta 22-20 galdu zuten, partidu gogorra jokatuta.

Usurbildarrak 11-5 aurreik joan ziren eta momentu horretan Zabala atzean jokatzen hasi zen. Piskanaka partiduari buelta eman eta 19na eta 20na egon ziren. Azkenean, ordea, usurbildarrak nagusi eta berak eraman zituzten Gipuzkoako Txapelketa Herrikoaren aurreneko txapelak. □



Zabala-Rekalde, behean.

### Erroizenea-Arrutik 22-18 irabazi eta Yubero-Oteizak 22-13 galdu

ATZO 22 urtez azpiko txapelketako bi partidu jokatu ziren.Erroizeneak eta Arrutik partidu gogorra jokatu eta 22-18

irabazi egin zuten. Yuberok eta Oteizak ez zuten suerte bera izan eta txapelketatik kanpora gelditu dira. □

## XAKEA - IGOERA FASEA

### Hernaniko bi taldeek erraz irabazi

HERNANIKO bi xake taldeek igoera fasea jokatzen hasi dira asteburu honetan, eta ha-sera ederra eman diete biek

ere. Hernani A 1-3 irabazi zuen Eibarren eta Hernani B-k 3-1 hartu zuen mendean Zarautzko taldea. □

### ESKERTZA

#### Pako Galdeano Izagirre

2003ko urtarrilaren 23an hil zen 78 urte zituela

Pako Galdeano Izagirreren sendiak eskerrak ematen dizkizue hiletetan izan eta egun hauetan zuen babesera eman diguzuen guztiori.

Pikoaga Baseria Hernanin 2003ko urtarrilaren 27an.

### ZERBITZUAK

#### TELEFONOAK

► Taxiak:  
943 550093  
► Udalzaingoak:  
943 333288  
► DYA:  
943 464622  
► Anbulutorioa:  
943 006666  
► Jokalari anonimoak:  
943 331103

#### FARMAZIAK

► Egunez:  
**ASTELEHENIA**  
Aizpuru Latxunbe Berri 11  
► Gauez:  
Aizpuru Latxunbe Berri 11  
943 336077

► Egunez: Etxebeste Elkano 2  
943 552087  
► Gauez: Etxebeste Elkano 2  
943 552087

### AITAN-ETXE TABERNA

ECUNELKO MENUAK  
Larramendi 15 - Tel: 943 550046  
HERNANI  
PROCOLOR ZEN-  
Landaribar, s.l.

Pintatzeko ekipoa  
Industria eta dekorazio rako  
pinturak  
Pintatutako paperak

### AMEGAR

#### etxe tresnak altzariak

  
Bisita ezazu gure web orria eta ikusi gure eskeintza.  
www.amegar.net

Txitxita kalea 15 - HERNANI  
Tel 943 551125 - Faxa 943 551603